

Laster iritsiko da udazkena, eta Jonek ikasturte berrirako gauzak prestatzen hasi behar du. Gaur, Jon eta bere ama kiroletako zapatilak eroatera joan dira zapata-denda batera. Oso ongi geratzen zaizkion zapatila batzuk probatu ditu, baina zapatilen marka ikusi eta ez dituela nahi esan dio amari:

—Nik “Adidas” batzuk nahi ditut, askoz ere hobeak dira telebistan iragartzen dituztelako.

Ama zakarki altxatzen da eta ezer erosi gabe irteten da dendatik.

1. Zure ustez, Jonek zapatilak aukeratzeko duen irizpidea egokia al da?

- A) Bai, berak “Adidas” batzuk nahi dituelako.
- B) Bai, telebistan iragartzen dituztelako.
- C) Ez, ez direlako hain politak.
- D) Ez, horrek ez duelako esan nahi zapatilak onak direnik.
- E) Ez, etxean horrelako zapatilak badituelako.

2. Zergatik altxatu eta alde egin du amak?

- A) Beste zapata-denda batera joan nahi duelako.
- B) Presaka dabilelako.
- C) Jonekin haserretu delako.
- D) Ez zaizkiolako kiroletako zapatilak gustatzen.
- E) Ez dituelako zapatilak behar.

3. Zein garaitan gertatzen da testuan agertzen dena?

- A) Udaberrian
- B) Udan
- C) Udazkenean
- D) Neguan
- E) Eguberrian.

4. Zer esan nahi du zapatilak oso ongi geratzen zaizkiola?

- A) Neurrikoak dituela, oso politak ez izan arren.
- B) Handi samarrak dituela, baina ez daudela gaizki.
- C) Bere neurrikoak direla, oina handiagoa egiten dioten arren.
- D) Politak dituela, baina oinetan mina egiten diotela.
- E) Politak direla eta neurrikoak dituela.